

SAN JOSEMARIA ESCRIVA DE BALAGUER, APAIZA

Sarrera-ant.

Jr 3,15

Neure gogoko buruzagiak emango dizkizuet, jakinduriaz eta zuhertasunez gitaduko zaituztenak.

Otoitza

Jainko Jauna,

Zuk egin zenuen San Josemaria apaiza Elizan

santutasun eta apostolutzarako dei unibertsalaren zabaltzaile:

Egizu, haren bitartekotzaz eta jarraibidez,

Jesus zure Semearen antzirudiko eguneroko lanaren bidez egin gaitzala eta salbamen ekintzaren zerbitzuan maitasun biziz jardun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Onar itzazu, Aita txit Santu,

San Josemariaren oroitzapenean eskaintzen dizkizugun dohain hauek,

Kristok Gurutzeko aldarean eskaini zuen

eta Sakramentu honetan berritzen den opariarengatik,

guk egiten dugun guztia santutzea atsegin izan dakizun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Jaunartze-ant.

Mt 20,28

Gizonaren Semea ez da etorri besteen zerbitzuak izatera, zerbitzari izatera baizik, bere bizia guztien alde ordainsaritzat ematera.

Jaunartze odorengoa

Jaungoiko gure Jauna,

San Josemariaren ospakizunean hartu ditugun sakramentuek

sendotu dezatela gudan seme-alabatza ordezeko espiritua,

zure nahiari zintzo loturik,

santutasunaren bidea alai egin dezagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.